

## La Rotonda, diskoteka

Udalbatzarraren joan den astearteko bilkuran, Auditiz Akularri buruzkoa eztabaidagai nagusia izan zen, baina beste gai batzuk ere mahai gainean egon ziren. Tartean, La Rotonda-ko egitasmoa. Udalbatzarrak Kontxako pasealekuko eraikina zabaltzea onartu zuen, PSE-EEren eta PPren aldeko botoekin. Honek La Rotondan antzerki-kafea eta diskoteka egiteko proiektuari bide emango dio. Bai EAJ-EAK, bai Batasunak kontra bozkatu zuten.

La Rotonda berria egungoa baino zabalagoa izango da eta mila metro koadro izango ditu, guztira. Jatetxea, antzerki-kafea eta diskoteka izango da, zuzeneko emanaldiak egitea ere



aurreikusi da, eta Donostiako Iñaute enpresak kudeatuko du hamahiru urtez. 600 lagunentzako ikuskizun aretoa izango du. Zabaltze lanek, bestalde, 900.000 euro inguruko aurrekontua izango dute (150 milioi inguru pezeta) eta Iñaute-k berak ordainduko ditu.

Oposizioko alderdiek Udalbatzarraren osoko bilkuran adierazi zuteenez, La Rotondari eman nahi zaion erabilera ez dator bat Kostaldeko Legeak dioenarekin. Ildo honetatik, beste erabilera batzuk aztertu beharko lirakeela esan zuten. Karlos Trenor Batasunako zinegotziak,

## Adostasunik ez Auditiz Akularri buruz

Joan den asteartean, hilak 5, Auditiz Akularreko sugetzarraren beste atal bat ikusi genuen. Udalbatzarraren osoko bilkurak ez zuen egitasmoa eztabaidatu ere egin, atzera bota baitzuen lehendabizi Donostia eta Pasaia arteko muga berriei buruzko proposamena. PSE-EEK besterik ez zuen proposamen hau

babestu. Beraz, Auditiz Akularren 3.000 etxebizitza egiteko proiektua ez atzera ez aurrera dago oraingoz. PSE-EE, hala ere, beste egitasmo bat aurkeztekoa da, Donostia eta Pasaia arteko egungo mugak kontuan hartuta.

Esan bezala, Auditiz Akularreko egitasmoa ez jorratzeko arrazoia Udalbatzarrak

muga berriak ezartzeko proposamenari ezezkoa eman izana izan zen. Bi udalerrien arteko mugak ez daude erabat erabat finkatuta eta horrexegatik, Donostia eta Pasaia-ko udalak elkarrizketan hasi ziren. Negoziazio hauen ondorioz, Donostiako Hiri Planean sailak proposamen bat aurkeztu zuen. Astearteko bilkuran, ordea, EA-EAJk eta PPK kontrako botoa eman zuten eta Batasuna abstenitu egin zen. Hiru alderdi politikook "adostasun falta" argudiatu zuten proposamena atzera botatzeko.

Osoko bilkura egin ondoren, PSE-EE eta PP udal gobernukideek bilera egin zuten. Bertan hainbat gai jarri ziren mahaigainean, eta guztiek bi alderdien oniritzia jaso zuten, PSE-EEK Auditiz Akularri buruz proposatutakoak izan ezik. Izan ere, PSE-EEK proiektu berria aurkeztu nahi du, Donostia eta Pasaia arteko egungo mugetan oinarrituta. PPK berriro ere kontra bozkatu zuen arren, proposamenak aurrera egin zuen. Odon Elorza alkateak iragarri duenez, egitasmo berria hil honetan bertan eramango da Udalbatzarraren osoko bilkurara. Kontuak kontu, PSE-EEren eta PPren arteko liskarrak berriro errepikatu dira aste honetan eta beraz, alderdi politiko guztien jarrera ikusita, ez dirudi Auditiz Akularreko auziak irtenbide erraza duenik.

